

ERABAKIA, EPAIMAHAIARENA, LAUGARREN SAILKAPEN TALDEA, TEKNIKARI LAGUNTZAILEEN KATEGORIAN, ARGITALPENAK ETA ARTE GRAFIKOAK ESPEZIALITATEAN, LAN KONTRATUDUN LANGILEAK SARTZEKO HAUTAKETA PROZESUA, 2018KO AZAROAREN 2KO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA.

8.6 oinarri orokorrean, bigarren paragrafoan, zehaztuta dago lehiaketa fasean merezimenduak baloratuko direla eta fase horretan lortutako puntuazioa izango dela deialdiaren oinarri espezifikoetan zehaztutako baremoen arabera lortutako puntuen batura.

Horrela, aipatutako hautaketa prozesuko oinarri espezifikoetan, laugarren puntuan, jasota dago lehiaketaren fasean aztertu eta baloratuko direla oposizio fasea gainditu duten hautagaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak, eta merezimendu bakoitzari dagozkion puntuak emango zaizkiola oinarri horretan zehaztutako baremo espezifikoaren arabera.

Bestalde, aipatutako hautaketa prozesuko hautagaiek oinarri orokorretako 8.3 oinarrian zehaztutakoari jarraituz egiaztatu dituzten euskarako hizkuntza eskakizunak ere baloratu dira, aipatutako hautaketa prozesuko oinarri espezifikoetako seigarren oinarriari jarraikiz.

Hortaz, hautaketa prozesuko epaimahaiak hautagaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak eta euskarako hizkuntza eskakizunak aztertu eta baloratu ondoren, eta epaimahaiak, bilduta, deialdiko oinarri orokorretako zortzigarren eta hamabigarren puntuei eta oinarri espezifikoetako seigarren puntuari jarraikiz, erabaki du:

LEHENENGOA. - Argiratzea oposizio fasea gainditu duten hautagaiek legezko epean eta eran alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduen eta euskarako hizkuntza eskakizunen behin-behineko balorazioa.

BIGARRENA. - Iragarkia argitaratzea UPV/EHUko Lan Eskaintzen Atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp); bertan ikusi ahal izango da merezimenduen eta euskarako hizkuntza eskakizunen behin-behineko balorazioa.

HIRUGARRENA. - Hamar (10) egun balioduneko epea zabaltzea, erabaki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, hautagaiek erreklamazioak egin ditzaten. Erreklamazioa idatzi bidez egin beharko da, idatzia UPV/EHUn horretarako zehaztuta dauden erregistroetan aurkeztuta, edo 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 16.4 artikuluan zehaztutako bideen bidez aurkeztuta. Edozelan ere, kontuan hartu beharko da aipatutako legeko azken xedapenetatik zazpigarrenean zehaztutakoa, hain zuzen ere, erregistro elektronikoei buruzko lege xedapenak bi urteren buruan sartuko direla indarrean.

Leioa, 2021eko urtarrilaren 26a

Epaimahaiko idazkaria

Jesús Moro de Arriba